

❧ Hitz eta Pitz ❧

Iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko euskal haur eta gazte literaturari begirada bat



Hitz eta pitz honetan editore, idazle eta ilustratzaile «beteranoak» eta «berriak» elkartu ditugu, 80ko hamarkadan haur eta gazte literaturan zegoen giroaren eta gaur egungoaren gainean solasteko.

Mari Eli Ituarte, Gero argitaletxekoa, eta Antxiñe Mendizabal, Elkar argitaletxekoa, izan dira aukeratu ditugun editoreak. Idazle gisa J. M. Olaizola «Txiliku»k eta Leire Bilbaok parte hartu dute. Azkenik, Antton Olariaga eta Aitziber Alonso ilustratzaileek ere erantzun dituzte gure galderak.

Hona hemen galdetegia:

EDITOREEI

Beteranoei

1. Nola aldatu da zure lana urte hauetan? Zer alde ikusten duzu lehengo baldintzen eta oraingoan artean?
2. Nola ikusten duzu euskal liburugintzaren profesionalizazioa? Zer ekarri du horrek?
3. Zer bide daukagu oraindik ere jorratzeko? Aukera eta baliabideak zeuen alde egongo balira, zer egin nahiko zenukete?
4. Haur eta gazte literatura kaleratzen duten argitaletxe asko daude, hamar baino gehiago, alegia; zer ondorio du produkzioa horren sakabanatuta egoteak?
5. Euskal haur eta gazte literaturaren arloan jarduten duten editore gehienek beste arlo batzuetan ere egiten dute lan: helduen literaturan, ikasliburuetan... Zer deritzozue horri?

Berriei

1. Nola ikusten duzu zure aurreko euskal editoreek egindako lana?
2. Lan horietatik nabarmenduko zenuke baten bat? Zergatik?
3. Zer erronkari eutsi beharko diozue editore «berriei» («zaharren» eskutik helduta)?
4. Aukera eta baliabideak zeuen alde egongo balira, zer egin nahiko zenukete?
5. Haur eta gazte literatura kaleratzen duten argitaletxe asko daude, hamar baino gehiago, alegia; zer ondorio du produkzioa horren sakabanatuta egoteak?
6. Euskal haur eta gazte literaturaren arloan jarduten duten editore gehienek beste arlo batzuetan ere egiten dute lan: helduen literaturan, ikasliburuetan... Zer deritzozue horri?

IDAZLEEI

Beteranoei

1. Nola aldatu da zure lana urte hauetan?
2. Zer alde ikusten duzu lehengo baldintzen eta oraingoan artean?
3. Nola ikusten duzu euskal liburugintzaren profesionalizazioa? Zer ekarri du horrek?
4. Zer bide daukagu oraindik ere jorratzeko? Aukera eta baliabideak zeuen alde egongo balira, zer egin nahiko zenukete?
5. Zer gabezia ikusten duzu oraindik euskal haur eta gazte literaturan?

Berriei

1. Zein izan dira zure iturriak?
2. Nola ikusten duzu zure aurreko euskal idazleek egindako lana?
3. Lan horietatik nabarmenduko zenuke baten bat? Zergatik?
4. Zer erronkari eutsi beharko diozue idazle «berriei» («zaharren» eskutik helduta)?
5. Aukera eta baliabideak zeuen alde egongo balira, zer egin nahiko zenukete?
6. Zer gabezia ikusten duzu oraindik euskal haur eta gazte literaturan?

ILUSTRATZAILEEI

Beteranoei

1. Nola aldatu da zure lana urte hauetan?
2. Zer alde ikusten duzu lehengo baldintzen eta oraingoen artean?
3. Nola ikusten duzu euskal liburugintzaren profesionalizazioa? Zer ekarri du horrek?
4. Zer bide daukagu oraindik ere jorrazteko? Aukera eta baliabideak zeuen alde egongo balira, zer egin nahiko zenukete?
5. Zer eragin izan dute konputagailuek ilustratzeko garaian?
6. Euskal merkatua horren txikia izateak nola baldintzatzen du irudigileen profesionaltasuna?

Berriei

1. Zein izan dira zure iturriak?
2. Nola ikusten duzu zure aurreko euskal ilustratzaileek egindako lana?
3. Lan horietatik nabarmenduko zenuke baten bat? Zergatik?
4. Zer erronkari eutsi beharko diozue ilustratzaile «berriei» («zaharren» eskutik helduta)?
5. Aukera eta baliabideak zeuen alde egongo balira, zer egin nahiko zenukete?
6. Zer eragin izan dute konputagailuek ilustratzeko garaian?
7. Euskal merkatua horren txikia izateak nola baldintzatzen du irudigileen profesionaltasuna?



Mari Eli Ituarte Zarragoikoetxea

Euskarazko bildumen arduraduna

GERO argitaletxea

1. Azken 15 urteotan aldaketa dezente bizi izan ditugu argitaletxeetan, eta hori ezin uka daiteke. Hortaz, zenbait puntuetan banatu eta erantzuten saiatuko naiz.

Azokak

Liburu-azoketan parte hartzea asko bultzatu izan dute, bai EEEtik, eta baita Euskadiko Editoreen Gremiotik ere. Gure argitaletxeak bi elkarteetan parte hartzen duenez, egoki ikusten du azoka horietan partaide izatea. Duela urte batzuetatik hona (eta, batez ere, azken bizpahiru urteetan), aukerak zabaldu egin dira; Frankfurt eta Liberretik, Bolonian eta Guadalajaran ere presente egotera igaro gara. Gure liburuak ezagutzera emateko, eta, aldi berean, mundu zabalean barna ekoizten dena ezagutzeko, atari paregabea direla iruditzen zait. Horrek guztiak albo-herrietan argitara ematen dena

hobeto ezagutzera bideratu gaitu, eta, horrekin batera, gure argitalpenen kalitatea hobetzera.

Gurera etorrita, azaltzen ari garen epe honetan etxeko azoka nagusian ere, Durangon alegia, ia ikusezinak izatetik presentzia sendotzera iritsi gara, eta bide horretatik jarraitu nahi genuke lanean.

Ilustratzaileak, egileak

Egia da, idazle eta ilustratzaile kopurua ere ugaldu egin dela gurean. Ugaldu eta hobetu esango nuke. Nire ustez, teknika eta kalitate aldetik irabazi da batik bat ilustratzaileen munduan; aniztasun handia dago, eskaintza zabala eta jende ongi prestatua. Duela ez hainbeste urte, marrazkilari onak geneuzkan arren, estilo aldetik ez ziren hain nabarmenak, eta, horrez gain, marrazkiak umeen kontua zirela pentsatzen zen, ia-ia testuaren «edergarri» hutsak.





Gure esparruan –haur eta gazte literatura, batik bat–, marrazkilaria edo ilustratzaileak ezinbestekoak direla esango nuke –ALBOKA bilduma–, eta helduen literaturan ere badute bere tokia. Esaterako, Euskal Herrian hain ohikoa ez den arren, Europan tradizio handia dute helduen albumek, eta GERO argitaletxea ahalegin handia ari da egiten azken urteotan bide zail horretan, ABARKA bildumaren esker (helduentzako album ilustratuak).

Egileak ere ugaltu egin zaizkigula esango nuke, edo, beharbada, hizpide dituzten gaiak dira askotarikoagoak eta aberatsagoak. Egun, haurren literaturan ere gai ugari lantzen da; zer esanik ez gazteen munduan. Irekitasun eta aniztasun hori oso aberasgarria eta literaturaren demokratizazioaren ispilu dela esatera ausartuko nintzateke. Aurrerapausoa nabarmena izan da.

Beharbada, zerikusia izango du horrekin guztiarekin lehenago aipatutako azoketan parte hartzeak ere. Beste kultura batzuetan, beste hizkuntza batzuetan, ekoizten dena hurbil dugu orain, eta hori islatu egiten da euskal literaturaren ekoizpenetan. Dena den, bideak urratzen hasiak gara, baina sendo eutsi beharko zaio erronkari.

Itzulpenak

Arlo honetan ere aurrerapen handia bizi dugu, bai kantitateari eta baita kalitateari dagokionez ere. Ez dago liburutegi eta dendetako apalategiei erreparatzea besterik. Asko dira euskarara itzultako liburu interesgarriak, eta baita, (eta hori fenomeno berriagoa da) euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultitakoak ere. Aitortu beharrean gaude, azken bide hori gehienbat helduen liburuekin gauzatu dela, baina bidea ekinaren ekinez egiten denez, ilusio handiz jorratu beharko den arloa da.

Adibidez, gure argitaletxean badugu erronka handi bat: ALBOKA album-bilduman ateratzen diren liburu guztiak euskaraz sortutakoak dira, eta, gero, gaztelaniazko beste edizio paralelo batean ere argitaratzen dira. Idazleentzat beraientzat ere oso ideia erakargarria izan ohi da.

Baliabide teknikoak

Urteotan egin diren aurrerapenei esker, duela 10-15 urte zuen kolorerik ere ez dauka editorearen lanak. Baliabide asko, anitz eta aberatsak ditugu eskura: Internet bera ikaragarri garatu eta hedatu da, eta zabalkunderako erakusleho gisa tresna

aparta da, batik bat hedapenerako eskaintzen dituen aukerak asko ugariarazi dituelako. Hor daude, baita ere, hiztegi berezituak, corpusak, itzultzaile eta zuzentzaile automatikoak, on-line edozein kontsulta egiteko aukera...

Testuen orrazketa eta zuzenketak egiteko orduan ere lana asko erraztu da kontsulta-baliabide horiei guztiei esker. Eta, denbora irabazteko ere primerakoak dira; izan ere, egileekiko, ilustratzaileekiko harremanak ia-ia aurrez aurre gaudenean bezalaxe gauza daitezke.

Azken finean, alde teknikoa errazteak lana ziurtasun handiagoarekin eta azkarrago egitea ekartzen du, eta hori, benetan da estimagarria.

Tiradak eta aleak

Hauek ere oso presente izan beharrekoak dira. Ez gaitzeen itsutu eta errealitateari aurrez aurre

begiratu diezaiogun. J.M. Torrealdaik azken urteotan salatu duenarekin bat nator; hots, azken urteotan liburua aleak galdu eta galdu doala, eta hori ez dela seinale ona.

Gaur egun, duela 15-20 urte baino askoz ale gutxiago ateratzen da titulu bakoitzeko. Esaterako: 1976-1980 urte tartean haur eta gazte literaturako nobedade baten 3.900 ale ateratzen ziren lehen argitaraldian. 25 urte geroago 1.900 alekoa da kasurik onenean. (Haur eta gazte literaturarena aipatu dut, tirada handienak berak izaten dituelako eta horixe delako aldizkari honen esparrua).

Hala ere, kontraesana dirudien arren, eskaintza editoriala hazi egin da, gaur egun askoz titulu gehiago argitaratzen baitira. Baina hazkunde hori ez da «erreal» neurri batean; hau da, tiradetan galtzen dena ez du tituluen gorakadak konpentsatzen eta aski datu daude horren adierazgarri.





2. Liburugintzara, oro har, jendea letren mundutik iritsi izan da tradizionalki. Hala ere, gaur egun liburugintzaren sektoreak bide berriak urratu ditu, eta gainontzeko esparruetako enpresek bezala, kudeaketa sendoa eta arduratsua behar du aurrera egin nahi badu. Horrek aldaketak ekarri ditu; esaterako, editoreaz gain, bestelako figurak ere indartu egin dira zenbait argialetxetan: kudeatzailea, esaterako.

Egun bizi dugun lehiakortasunak baldintzatzen gaitu neurri handi batean, eta profesionalizazioa bideratuta gaude.

Dena den, balorazio bat egite aldera, kontuan izan behar da, oso garrantzitsua izan arren, kultura-industria kulturaren zati bat baino ez dela, liburuaren industria liburuaren edo liburu-kulturaren errealitatearen zati bat baino ez den bezala, eta horrek profesionalizazioaren kontua zaildu egiten du.

3. Euskal editoreok bide luzea dugu aurrean oraindik, luzea eta trabaz betea, bidenabar esanda. Beti esan izan da —eta azken bolada honetan dezenteko oihartzuna izan du—, euskarak ez duela «estilo» edo «genero» guztiak lantzeko trebeziarik garatu. Edo, ez dugula horrelakorik euskaraz sortzen,

argitaratzen(?). Uler bedi, esaterako, nobela arrosa, autolaguntza liburuak, kioskoetako literatura... apenas existitzen diren gure munduan. Literatura «normalizatua» nahi badugu, agian, horrelakoak ere ekoizti beharko genituzke.

Bestalde, bide luze eta neketsua dugu gure literatura kanpoan saltzeko ahaleginean ere. Hasiak gara, baina ahaleginak dezenteki handiagoa behar du, eta beharrezkoak dira instituzioen aldetik laguntza handiagoak ahalegin hori gauzatu ahal izateko.

Aukera hobeak izanez gero, GERO argialetxearen helburua euskaraz sortutako (eta ilustratutako) liburu-bilduma gehiago osatzea eta argitaratzea izango litzateke lehenetsua. Dena den, bien bitartean, zenbaitetan kutsu komertzial handiagoa duten argitalpenak kaleratzen dira, baina betiere irizpide argiekin jokatuta.

Azkenik, nik uste jorratzeke dauzkagun bideei buruz ari garela, oso garrantzitsua dela merkatuaren balizko saturazioari buruzkoak argitzea. Nik baino esperientzia luzeagoa duen J. M. Torrealdaireren hitzak baliatuko ditut horretarako:

«—Euskal merkatua saturatuta al dago?

»—Badira bi esaldi, egia izanik ere, errealitatea ezkututzen dutenak. «Irakurtzen denarekin

alderatuta gehiegi publikatzen da euskaraz» da bat; «Publikatzen den gutzia ezin da irakurri», bestea. Irtenbidea ez da iradokitzen dutena; alegia, gutxiago argitaratu behar dela. Kontrara baizik. Produktzioa ikusi besterik ez dago, euskaraz bizi nahi duen gizarte edo herri baten ikuspegitik gutxi(egi) publikatzen dela ondorioztatzeko. Gure liburugintzaren soluzioa ez dator eskaintza murriztetik, eskaria handitzetik baizik. Irakurri egiten da gutxi, ez gehiegi publikatu. Irakurketa da bultzatu behar dena, eskaria» (*Argia aldizkaria*, 2.124 zenbakia, 2008-02-18).

Azken esaldiarekin guztiz bat nator ni neu ere. Baina, hor dago koska: nola lortuko dugu, bada, eskaria handitzea? Nola lortu irakurleak euskal irakurgaietara hurbiltzea? Nola fidel mantentzea? Nago, bide hori ere jorratzeke dugula oraindik.

4. Sarritan produktu antzekoak ateratzera garamatza kontu horrek, modan dauden gaietarako buruzkoak, pertsonaia ezagunetan oinarritutakoak... Egia da, duela urte batzuk haur literaturaren esparruan sartzen ez zirenak ere egun badabiltzala langintza horretan. Aurreko puntuan erantzun dudanari jarraituta, asko argitaratzen da, baina tiradak —halabeharrez—askoz murriztagoak dira. Kontuan izan behar da, baita, berrargitalpenak egitea duela urte batzuk baino errazagoa dela teknikoki, eta argialetxeok ez dugu hainbeste arriskatzen.

Bestalde, idazle ezagun batek dioen bezala, gurea «irakurle gatibuen» literatura ere bada. Esan nahi da, ikasle jendea dela literatura-argialetxeon erosle potentziala, eskolan irakurtzen derrigortzen dituztelako, eta beraz liburuak erosten dituztelako. Hau da, adin-tarte horretan daudela erosle gehienak, eta hori oso erakargarria da edozein argialetxerentzat.

5. Lehenago profesionalizazioari buruz aritu gara, baina sektoreari buruz ari ginen gehienbat. Beste kontu bat da, argialetxe baten barruan, eta tamainaren arabera (produktzioaren arabera), bertako

langileek —editoreek kasu honetan—, bestelako lanetan ere aritu beharra izaten dutela. Egoera ideala, bakoitzak bere esparrua ondo ezagutu eta hori kudeatzean datza. Errealitatea, ordea, ez da beti hain erraza, eta gurean behintzat, bestelako kontuez ere arduratu behar izaten dugu.

Azken hausnarketa

Euskal munduan asko kostatu zaigu gure hizkuntzan idatzitako testuen aukera zabala izatea, eta lortu dugunean badirudi ez dugula behar beste preziatzen.

Umetan euskaraz irakurtzen hasten dira gure haurrak, 10-12 urterekin eusten diote oraindik, baina nerabezaroan bete-betean sartzen direnean halako haize batek jota, gaztelania aukeratzen dute nagusiki beren irakurketetarako. Kontuan hartzen badugu gure gaurko gaztetxoak neurri handi batean euskaraz hazi eta hezitakoak direla, badago bat ez datorren zerbait kontu horretan.

Horixe da, hain zuzen, idazle eta itzultzaileen kezka handienetako bat —eta nola ez, baita argialetxeetako editoreena ere—: nola aukeratu, asmatu, irakurlearen gustuekin bat datorren produktuak ekoizten? Zein ezaugarri behar dituzte izan? Nolako gaiak ukitu behar dituzte? Edozein liburuk merezi du itzultzea? Edo, bestela adierazita, zer da itzultzea merezi duena?





Antxiñe Mendizabal

Elkar Argitaletxea

1. Lan ona izan dela iruditzen zait. Euskal liburugintzaren edizioaren oinarriak jarri dituzte, profesional nahiz enpresa mailan. Kasu askotan bokazioz eginiko lana izan da eta ikuspegi hori gordetzea ona da, bokazioa eta profesionaltasuna uztartzeak beti eman izan ditu emaitza onak.

2. Hain justu bokazioa, bokazioz eginiko lana izan dela ia gehienetan. Gaur egun profesionaltasuna kontzeptua dago indarrean, baina nik ez nuke bidean utzi nahi gure aurrekoen lanarekiko gogoia eta atxikimendua.

3. Ideia eta proiektu berriak sortzearen erronkari ziur aski. Gure aurrekoek, hutsune handitik abiatu behar izan zuten, batzuetan kopiatuz edo imitatuz, beste batzuetan tradizioari heldu eta birsortuz. Urteak igaro dira eta aurrekoen sokari jarraituz lanean jarraitu dugu, baina ziur aski, sormenari astindu berri bat emateko garaia da. Erronka berriei aurre egiteko ez da nahikoa izango teknologia berrietara salto egitea; editoreok sortzaileak izan behar dugu.

4. Ez dakit aukerak eta baliabideak aurka ditugun. Behin gure errealitatea zein den jakin ondoren, aukerarik txarrenak ere gure alde jartzeko gaitasuna izan behar dugu. Jarrera eta gaitasun kontua da. Txikiok horretara ohituta gaude eta, akaso, beste batzuk baino malgutasun eta abilezia gehiago izan dezakegu erronka handiei aurre egiteko.

5. Lehenengo eta behin, erosleari eta irakurleari begira, aukera handiagoa eta askotarikoagoa. Argitaletxeei begira, konpetentzia handiagoa. Bi joerak elkarri eragiten diote: zenbat eta aukera handiagoa, irakurle ezberdin gehiagorengana iristen gara, eta aldi berean, horrek, produkzio askotarikoagoa egitera behartzen gaitu.

6. Ez diot aparteko garrantzirik ematen. Haur eta gazte literatura ez da gauza isolatu bat, haurrak eta gazteak ez diren bezala. Edozein modutan, aberasgarria iruditzen zait.



J. M. Olaizola, *Txiliku*
(Idazle beteranoa)

1. Oraindik ere ilusioa egiten dit, eta poza eman, horrelako galdeketa batean galdegileak idazle profesionaltzat hartzen nauenean. «Nola aldatu da zure lana» galdetzen didanean idazle-lanaz, idazle langintzaz, galdetzen didala sumatzen baitut (ez dakit hala den, baina hala dela pentsatu nahi dut). Ezin ahaztu, ordea, nire kasuan, eta haur eta gazteen literatura idazten duten beste askorenean, lan hori (idaztea, alegia) ez dela eguneroko eltzekoa ekartzen diguna. Euskaraz idazte hutsetik bizitzea ez da gauza erraza. Bihoa hori aurretik, eta gero gerokoak...

Nola aldatu da nire lana urte hauetan?

Haurrentzako ipuinak idazten hasi nintzenean (duela hogeita hamar bat urte) ikastolako irakasle nintzen, eta nire aurrean, begi-bistan, nituen irakurle izan zitezkeenak, ikasle haientzat idazten

bainuen. Gero, seme-alabak nituen erreferentzia zuzen haiek hazi ziren artean. Gaur egun nigandik askoz urrutiago daude nik idatzitakoa irakurriko dutenak, ikasleak urrundu egin baitzaizkit eta seme-alabak hazi. Hor dago aldaketa bat: erreferentea urrunago.

Bestalde, mundua (eta literaturaren mundua, bereziki), asko aldatu da urte horietan: idatzietarako gaiak, narratzeko moduak eta erak, hizkuntza erabiltzeko zalutasuna, euskara estandarrik egin duen bidea... Aldaketa ugari, dudarik gabe...

2. Zer baldintzatan hasten zen idazten euskal idazlea orain dela hogeita hamar urte?

Gogo handiz, esango nuke (eta asko gehiagorik gabe, bestalde).

Argigarri izan daitezen, eta baldintzak aipatzen

hasi orde, orduko beharrak ekarriko nituzke gogora, orduko beharrak eta haiei erantzuna emateko irrika. Uste baitut horixe zela orduko asmoa eta borondatea euskal kulturaren inguruan genbiltzanontzat: zerbait egin.

Nola hasi ginen idazten?

Nire kasuan behintzat, behar horiek bultza eginda. Egia da beti izan dudala neure barruan idaztearen harra, ez dut hori ukatuko, baina har horrek jota egoteak adina akuilatu ninduten luma hartzera haur eta gaztetxoek euskaraz zer irakurri gutxi zutela ikusteak.

3. Zaila. Matematika kontua da. Eredu urriko hizkuntza da euskara, hiztun gutxikoa... Euskaldunok gutxi gara, alde batetik, eta idaztetik bizitzea ez da gauza erraza, bestetik, ez hemen eta ez beste inon.

Idazlearen profesionalizazioa, eta haurrentzat edo gaztetxoentzat idazten duen idazlearena zer esanik ez, ez da gauza erraza edozein hizkuntzatan ere. Badira asko saltzen diren hainbat liburu, baina, oro har, idazle askok beste lanbide bat izan ohi du idazteaz gain (kazetari, editore, kultura-eragile...), eta ez dut uste gauzak asko aldatuko direnik.



Dena dela, nik miretsi egiten ditut erabaki hori hartu eta idaztetik bizi direnak, eta haien ondoan beti sentitu izan naiz *amateur* edota *dilettante* bat izango banintz bezala.

4. Iruditzen zait galdera hau ez dela idazle beteranoei egitekoa. Gure bidea egina dago, nolabait esateko, eta ez da erraza izango gu bidez aldatzea. Pentsatzen dut oraindik ere bazterrak nahasten ibiliko garela urte batzuetan, endredamakilak eta kaskagogor samarrak izan baikara gure belaunaldikoak, baina benetan bidea berritu behar dutenak, eta, bide batez, gu bidetik baztertu behar gaituztenak, idazle gazteek izan behar dutela.

Horiengan dago etorkizuna, eta gogoz, gogor eta egoskor ekiteko eskatuko nieke.

5. Hasierako urritasun hartatik abiatuta gaur eta egun euskaraz zenbat liburu dagoen ikusita, euskaldunok geure hizkuntza indartzeko sekulako ahalegina egin dugula iruditzen zait. Gu hasi ginenean pentsa ezinezkoa zen, niretzat behintzat, horrelako zerbaitetara iritsiko ginenik.

Bestalde, jendearen ohituretan eta kulturakontsumoan aldaketa asko gertatzen ari dira azken aldian. Erronka berriei erantzuteko bideak egitea ezinbestekoa izango da, eta iruditzen zait oraindik burua aldatu gabe gabiltzala horretan, betiko formula zaharretan murgildurik.



Leire Bilbao (Idazle berria)

1. Ikastolan ikasitako umea naiz. Euskarazkoak izan dira gaztetako nire irakurketak. Euskal idazleek idatzitako haur eta gazte literatura irakurri dut batik bat, baita beste hizkuntzetatik euskarara itzulitakoak ere. Unibertsitatera arte, euskaraz ikasi dut osoki. Nire lehen erreferentziak euskal idazleenak dira. Beraz, esan dezaket euskal idazleen lanetik edoski dudala, eta gerora egarri horrek kanpoko iturrietara ere eramán ninduela.

2. Urte batzuetara konturatu naiz, orain ezagun eta lagun ditudan idazleen lanak irakurriz hazi naizela. Orduan, idazlearen izenari erreparatu gabe irakurtzen nituen liburuak, eta gerora, apaletan begiratzuz ohartu naiz batak edo besteak idatziak zirela. Eta deskubrimendu horretan niretzat ederrena, idazle horiek oraindik idazten jarraitzen dutela da. Katea sortu ez ezik, kateari ten egiten jarraitzen dutela.

3. Zaila da bakarra aukeratzea. Gogoan ditut, Joxan Ormazabalén *Patxi Errementaria*, *Makila-kixki*... Mariasun Landaren *Joxepi dendaria*... Behin eta berriz irakurri nuen Andu Lertxundiren *Madame Kontxesi* eta haren abenturekin osatutako bilduma... Eta itzulitakoetatik, *Hupsika bidelapurra*,

Ardi beltza edo *Tom Sawyerren abenturak*, adibidez.

4. Birsortzea, aurrekoek egin duten eta egiten jarraitzen duten bezala. Sortzen jarraitzea da erronka, sortutakoa eraldatuz. Baina hori, nik uste, norbere buruarekin egin beharreko ariketa dela lehendabizi. Aurrekoek egindakoa ez errepikatzea kontu bat da, eta norbere burua ez errepikatzea beste bat.

5. Euskaraz sortutako albumak sustatzea, adibidez, eta baita gazteentzako euskarazko komikiak ere. Nik uste, haur eta gazteek gustuko duten bi formatu direla.

6. Zuzentasun politikoa ahaztu, eta irakurle txiki baina handitzen doan horrengan gehiago pentsatu beharko genuke. Guk ere, irakurle gaztetxoak ginenean, helduen literaturara jotzen baikenuen bestelakoek asetzen ez gintuztenean. Baina ez da lantegi erraza, ordenagailu, bideo joko eta bestelakoek paperaren lekua hartu dutenean haur eta gazteen imajinarioan plus bat emango duten liburuak sortzea.

Antton Olariaga

(Ilustratzaile beteranoa)

1. Aldaketaren legea biziraupeneko ezaugarri eta baldintza ezinbestekoa omen. Eta da. Gure lanean, baldintza pertsonalak, tresnak, ingurua... dena zaharberritu zaigu. Berri-berritu ere bai. Irudikatzen ez genituen tresnak eskuratu ditugu. Ezusteko testuak irakurri, marrazki bizi-biziak dastatu... Esperientzia sakontzeko moduko gauza berrien berri izan. Baina, informazio gaindosiak ere nazkatu gaitu. Lan-erritmoak aldatu egin dira. Eta duela hogeita hamar urte sortutako zenbait ilusio ere zapuztu. Oparotasunetik belar motxera ere egin dugu inkurtsioa (ez ex-kurtsioa). Baina igotzen ari garen tontorretik ikusten duguna, erakargarria egiten zait. Oso. Animoso. Ganbara, obratan. Kontuz azpitik igarotzean.

2. Lan-baldintzen aldaketa sakona izan da. Alde batetik, kontratu sinatuak lortu ziren. Egile-eskubideak eskuratu. Ekoizleek produktuaren sormenean aktore moduan ikusi eta onartu gaituzte. Gure marrazki-margolana (originala) geurea da orain. Eskuratzeko eta gordetzeko (lehen ez bezala) aukera badugu. Baina harremana hobetzeko

premia ere badago. Hobekuntza, ekonomia arloan, eta produkzio arloan. Baina duela hogeit urte piztutako su batzuk itzali egin dira (edo dizkigute). Zenbait arlotan, bertako sortzaileek lan gutxiago dute eta gehiago inportatzen da. Merkeagoa delako, jakina. Mundu digitalaren ate fantastikoa ere zabaldu zaigu. Hor gauza asko daude finkatzeko (lan-estiloa, kontratu-mota, etab). Gu eta gurea aldatzeko aukera.

3. Profesionaltasuna ezinbestekoa da. Gauzak serio eta kalitatez egin nahi badira. Debate hori zaharkitua gelditu zaigu (edo ez?). Bideak asmatuta daude. Bide horien barruan behar dena: egokitze-lana, ausardia, sorkuntzaren aldeko apustua egitea, eta formula kontraktual-ekonomiko berriak martxan jartzea. Hemendik (etxetik) sortu nahi bada.

4. Hobekuntzaren bidetik joko nuke nik. Egokitu lan-baldintzak medio berrietara. Orain arte landutako espresibideak ahaztu gabe. Soporte horiek ezin dira baztertu. Eta modu orokorrean



kalitatea nahi bada, bertakoei eskaini behar zaie esperientzia eta eskarmentua hartzeko bidea. Hemen sortu, hemendik zabaldu. Bertan kalitatea bada. Eta zer esanik ez bide berri interdiziplinarioak jartzen baditugu martxan. Hori, oso garrantzitsua iruditzen zait. Horretarako, elkartzea, biltzea, konpartitzea, sektore ezberdinetako proiektuak elkarrekin martxan jartzea ezinbestekoa da, nire ustez. Idazle-ilustratzaile bikoteak sendotu. Merkatua herriko plaza bada, goazen batera.

5. Tresnak markatzen du emaitza. Papera izan da guretzat oinarri nagusia. Eta horren gainean eta horretarako (liburuentzako) egin ditugu, batez ere, gure lanak. Lehorrean edo blaituz, arkatzarekin edo akuarelarekin, argizariarekin edo tenperarekin, bertikalean edo horizontalean. Kontaktu fisiko erdi lizun hori paperarekin, testuarekin... Zuria, abiapuntua (habia-puntua), eta borragoma. Luma eta rotringa. Burutik eskurako bidaia. Eta zakarrontziak. Sasioriginal gaizki eginen zimur-piloten babesleku, eta baita artazi-collagen zaborontzi. Ilustratzaileen NBA. Gorputzarekin sortzen ohitutakoak ez dio hain erraz uko egingo bide horri... Baina, bat-batean, ate zabala zabaldu da. Bide digitala: esku, hatz. Gu, txundituta.

Paisaia berri bat (freskoa batzuetan, errutinaz betea bestetan) azaldu da gure aurrean. Bakoitzak asmatu beharko zer-nola-zertarako erabili. Lan egiteko era aldatu zaigu. Emaitza ere. Soportea ere horretan da nagusi (papera edo pantaila). Asko esperimentatu beharra dago. Eta esperientziak konpartitzeko guneak sortu ere bai. Irudiarekin lan egiten dugunok ere, biltzeko, eztabaidatzeko, elkar laguntzeko espazioak ere martxan jarri beharko ditugu. Gure beharra (diseinutik hasi eta azken minianimazioarekin segi...) gero eta handiagoa izango da. Ezin dugu aukera hau galdu. Hemen, jakina. Eta hemendik.

6. Merkatu ttikiak baditu bere abantailak. Dena ez da hyper-super-mega. Ilustratzaileok ekoizleen legepean gaude. Gizarte ttiki honek aurre egiten dion modu berean egin beharko diogu aurre. Ttikiak baina ez ergelak. Agian, lehendabizi, ekoizleei saldu beharko diegu gure lana... Hemen sortutakoa orain arte baino gehiago zabaldu beharko dugu... Modu desberdin batean egin beharko dugu lan... Produktu diferenteak sortu... Talde multidiziplinarioak sortuz...? Baina gure bide bakarra: guztietatik ikasi, hemengoekin sortu. Plazara irten, merkatua dagoen egunetan ere.





Aitziber Alonso (Ilustratzaile berria)

1. Arte ederrak ikasi nituen eta pinturako espezialitatea egin nuen. Garai hartan ez nekien ilustratzailea izan nahi nuenik, eta ikasketak amaitzerakoan konturatu nintzen betidanik nire marrazkiek bazutela ilustrazioaren kutsua, marrazki bakoitzak istoriatxo bat kontatzen zuela. Beraz, nire iturriak pintura aldetik datoz, Gustav Klimt, Alfred Mucha eta Aubrey Beardsley-k, erromantizismoz, erotismoz eta detailez beteriko irudiak lantzen zituzten.

2. 70eko hamarkadako *Ipurbeltz* irakurtzen (edo hobeto esanda begiratzen) hasi nintzen, ez da beste ezer esan behar, lan aparta zen, maila izugarria zuen *Ipurbeltz* komikiak eta garai berezia zen, esnatzen ari ginen, nabaria da garai hartako ilusioa eta freskotasuna. Antton Olariaga, Tomas Hernandez edo Gaston Majarenas-en lanak gogoratzen ditut.

3. Lehen esan bezala, *Ipurbeltz* eta albumetan nire lehenengo oroitzapena Asun Balzolaren irudiak dira. Ilustrazioaren munduan sartu nintzenean

berrikusi nituen Asunen irudiak eta orduan esan nuen, hara! Txikitako nire marrazkiak! Ikastolako ikasliburuak ere gogoratzen ditut, «irakur» liburuak eta Antton Olariagaren irudiak.

4. Gure lana duin egin behar dugu. Albumaren kasuan adibidez, idazle eta irudigileen lana berdin berdina da, gehienetan tamden bat da, elkarlana, edo hala izan beharko luke behintzat, eta, hala ere, oraindik badirudi albuma idazlearena dela bakarrik, eta irudiak apainketa soila direla, ez zaigu albumaren kultura iritsi oraindik. Albumek hiru irakurketa dituzte: testuak irakurketa bat ematen dio, marrazkiek testua irudikatzen dute eta beste informazio bat gehitzen diote, eta testuak eta irudiak batera beste irakurketa bat ematen dute. Ez gara «apainlari» hutsak, geuk ere gauzak kontatzen ditugu gure hizkuntzan, irudien hizkuntzan.

5. «Liburu objektuak», «altxor txikiak», presarik gabe egindako lanak, detaile guztiak zainduz, kolekzio edo sailetatik kanpoko liburuak, eskuetan

eduki eta zentzumen guztiekin disfrutatzeko liburuak egin. Gaur egun, dena oso azkar doa, gaur ateratzen dena bi hilabetera ahaztuta dugu.

6. Nire gain oso gutxi, egia esan; pintzela eta arkatzekin disfrutatzen dut. Baina eragin handia izan du, hori ezin dugu ukatu eta eragin ona izan da kasu gehienetan; lana erraztu dezake, baina hor dago kokka ere... gauzak disfrazatzeko aukera ematen baitu... ilustratzailea ona denean ez duzu kontuan hartzen erabili duen teknika, irudia ikusten duzu eta irudiak transmititzen duena, besterik ez, hori lan on bat da.

7. Kanpoko liburuak euskaratzen badira... zergatik ez da alderantziz egiten? Oraindik hori ez dut ulertzen, kanpora atera behar dugu irudigileok gure lana saltzera? Eta idazleek? Bai, egin behar dugu, gure lanaren parte bat da, baina hemen egiten den produktua, geuk egindako produktua ez da ona? Noski, arazo ekonomikoa da, baina orduan zer? Arteak unibertsala izan beharko luke, eta ulertzen dut ez dela erraza, baina saiakera egin beharko genuke.



Entrevista con escritores, ilustradores y editores «veteranos» y «noveles»

En esta entrevista hemos contado con la participación de escritores (J. M. Olaizola «Txiliku» y Leire Bilbao), ilustradores (Antton Olariaga y Aitziber Alonso) y editores (Mari Eli Ituarte y Antxiñe Mendizabal). Los primeros comenzaron su labor profesional hace ya algunos años, los segundos han comenzado relativamente hace poco, aunque ya han demostrado su valía. Así en la entrevista podremos comparar la situación que se vivió en la década de los 80 y la actualidad.

Interview with «veteran» and «new» writers, illustrators and publishers

In this interview we had the participation of writers (J.M. Olaizola aka «Txiliku» and Leire Bilbao), illustrators (Antton Olariaga and Aitziber Alonso) and publishers (Mari Eli Ituarte and Antxiñe Mendizabal). The first in each pair began working professionally some years ago, the second started only a relatively short time ago, even though they have already established their worth. So the interview will enable us to compare the situation experienced in the 1980s with today's.